

KONTROL MOZIOA

ZUZENDARIEN EUSKARA ESKAKIZUNAK DIRELA-ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 14an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Uda aldean zuzendaritzak berritzeko prozedurak hasi ziren eta duela gutxi beste batzuk egin dira. Zuzendariak izendatzeko oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzerakoan ezagutzeko parada izan dugu, eta euskarari dagokion ezagutzaren inguruan trataera desberdinen lekuko izan gara: eskakizuna edo baldintza ez da izan, edo eskatu den maila jaitsi egin da, edo kanpo beste edozein hizkuntzarekin parekatu da. Hain zuzen ere horixe da mozio honi bide eman dion interpelazioaren muina, Etxegintza EEPko zuzendari-kudeatzailearen izendapenerako baldintzei buruzkoa.

Uda aldean izandakoak tarteko, egindako prozedura multzoa legearen baitan egon arren, euskararen normalizazioan atzerapauso argia zela ondorioztatu genuen, hartutako erabakiak ordura arteko irizpideen izpirituaren kontra joan zirelako. Zuzendaritzek euskararen erabileran izango duten eragina begien bistakoa denez, irailaren 24an Udalbatzak aho batez onartu zuen kontrol mozioak laburki zioen Udal Gobernuak lehendik ezarritako norabidea kontuan izateko.

Urriaren bukaeran Udal Gobernuak bere programaren berri eman zuen, hitzez hitz hauxe dioena: *“Udalaren administrazioaren esparruan, Donostiako Udalaren euskararen erabilerara normalizatzeko plana (2013-2017) garatzen jarraituko dugu. Arreta berezia jarriko dugu euskararen ezagutzatik benetako erabilerara jauzi egitean, udalaren administrazio-esparru guztietan areagotuz eta hedatuz (barneko eta kanpoko harremanak, aplikazio informatikoak, administraziokontratuak...)”*.

Hala ere, hasieran esan bezala, berriz ere Udal Gobernuak ez ditu bete azaldutakoak, eta Etxegintza EEPko zuzendari-kudeatzailearen izendapenerako baldintzak erabaki dituenen, iraileko Udalbatzak onartu zuenaren kontra jo du.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 20003 Donostia
- Tel. 943481027 -
eh_bildu@donostia.eus

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2015eko irailaren 24an onartu zuena betetzeko; hau da, berma dezala euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak ematen jarraituko duela, indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangitza (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz.

Donostian, 2016ko martxoaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia